

Arrazaren berreskurapenerako programari buruzko informe teknikoa

(Technical report on the races recovery program)

Plazaola, José M^a
Gipuzkoako Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Gipuzkoako plaza, 1
20004 Donostia

BIBLID [1137-8603 (1999), 14; 57-60]

Betizua, orokorrean, mendiko piriniar arrazaren ezaugarriekin bat dator, eta, agian, arraza horren aitzindaritzat hartu behar dugu. Betizua, arestian Euskal Herriko mendietan zehar ugaria bazen ere, ganaduen selekzioa eta produzteko eraren aldaketak, arraza honen bazterteza eta ia erabateko desagertzea ekarri du. Hala ere, badira hainbat arrazoi betizuak babesteko: Garrantzitsuena, agian sinpleena, honako hau: "direlako", eta direnen aldetik, izateko eskubidea dutelako. Bigarren arrazoi bat, "bizirik dirauen ondare kulturala direlako", izan ere, betizuen jatorria Euskal Herrikoarena bezain zaharra baita. Hirugarrenik, "biodibertsitatea mantentzearren", eta, honekin batera "haragia ekoiztera bideratutako selekzio prozesuak dakarren arrazaren zenbait ezaugarriren galtzea ekiditzearren". Azkenik, "arrazoi ekologikoak". Hemendik aurrera, betizuen geroa gure esku dato, zain ditzagun!

Giltz-Hitzak: Betizu arraza. Euskal Herria. Ondare kulturala. Biodibertsitatea. Ekologia.

Las características del ganado montaraz conocido como betizu, en líneas generales, coinciden con las propias de la raza pirenaica y, quizás, sea lícito considerarlo como su precursor. Si bien hasta época reciente la raza betizu era abundante en los montes del Euskal Herria, la selección de ganado y las transformaciones en los modos de producción han acarreado su marginación y su casi definitiva desaparición. Sin embargo, hay razones suficientes que abogan en favor de su protección. La más importante y la más simple quizás sea la de que "están" ahí y en consecuencia, tienen derecho a existir. Una segunda razón: se trata de un "bien cultural viviente", y ciertamente, el origen de las betizus es tan antiguo como el del propio País Vasco. La tercera sería "la conservación de la biodiversidad" y, con ello, el "evitar que las características de la raza se pierdan como consecuencia de los procesos de selección encaminados a la producción cárnica". Finalmente, por "razones ecológicas". El porvenir de las betizus está en nuestras manos, ¡salvem las betizus!

Palabras Clave: Raza betizu. País Vasco. Patrimonio cultural. Biodiversidad. Ecología.

Les caractéristiques du bétail sauvage connu comme "betizu" coïncident, en général, avec celles de la race pyrénéenne et il est peut-être permis de le considérer comme son précurseur. Bien que la race "betizu" fut abondante dans les montagnes d'Euskal Herria, la sélection du bétail et les transformations dans les formes de production ont entraîné sa marginalisation et sa presque totale disparition. Pourtant, il existe des raisons suffisantes qui plaident en faveur de sa production. La raison la plus importante, et peut-être la plus logique est que cette race "est là" et que par conséquent elle a le droit d'exister. Une deuxième raison : il s'agit d'un "bien culturel vivant" et l'origine des "betizus" est certainement aussi ancienne que le Pays Basque lui-même. La troisième serait "la conservation de la biodiversité" et, en même temps "éviter que les caractéristiques de la race se perdent à cause des processus de sélection destinés à la production de viande". Finalement, pour des "raisons écologiques". L'avenir des "betizus" est entre nos mains. Sauvons les "betizus"!

Mots Clés: Race "betizu". Pays Basque. Patrimoine culturel. Biodiversité. Ecologie.

1. SARRERA

Betizu arrazaren populazioa, milaka urteetan zehar gure artean bizi izan dena, Euskal Herriko beste hainbat arrazakin gertatzen ari den lez (arrazoi ekonomikoak direla medio), azken urteotan era kezagarrian gutxitu da eta gaur egun desagertzean dago.

Betizu arrazak, Sanchez Beldak dioenez, Turdetaniar enborra du sorburu.

Turdetaniar enbor hau, Iparrafrikatik Iberiar Penintsulara pasatzen da eta Mediterraneo neoko itsasbazterra jarraituz Pirinioetara heltzen da, hemen, bitan sakabanatuz, alde batetik eta kantauri itsasbazterretik Galiziaraino iritsiz eta bestetik Pirinioz bestaldera pasatuz, joan etorri honetan, zenbait betabere arrazaren jatorri izango delarik, besteak beste:

- Mahoniar arraza
- Retinta arraza
- Palmako arraza
- Galiziako behi gorria
- Pirineoko arraza
- Betizu arraza
- Etabar...

Hauek Pirinioetatik hegoaldean.Pirineoetatik iparraldean berriz:

- Limousin arraza
- Akitaniako blonde arraza
- Etabarren jatorri izango da

Dena den eta "Betizuei" dagokionez, mendiko piriniar arrazaren aitzindari bezala kokatu behar dugu agian arraza hau eta garai batean Pirineo mendikatean zehar ugariak baziren ere, denbora joan ahalaz eta ganaduen selekzioa eta produzitzeko eraren aldaketak, arraza honen baztertzea eta ia erabateko desagertzea ekarri du.

BETIZU ARRAZA BABESTEKO ARRAZOTIAK

a.- *Bizirik dirauen ondare-kulturala dugulako:*

Euskaldunok, harrotasun handiz aldarrikatzen dugu gure iragana: arbasoen jatorri ezezaguna, hizkuntza, ohiturak eta abar luzea.

Ugariak dira, arbasoengandik, mendez-mende eta belaunaldiz-belaunaldi jaso ditugun ondasunak. Batzuk bizigabeak, hala nola: trikuharriak, mairubaratzak, zenbait leiza zulotan aurkitutako marrazkiak, bestelako eraikuntzak, eta abar.

Beste batzuk, ordea, bizirik dirauten ondare-kulturalak ditugu, besteak beste, garrantzitsuenak, euskara gure hizkuntza.

Bigarren multzo horretan kokatu behar ditugu egun desagertzeko zorian dauden Betizuak, eta, galduko ez badira, guregan eta ez beste inorengan dago erantzukizuna.

Arbasoek guretzat gorde dituzten era berean, guk ere, hurrengo belaunaldientzat gordetzeko beharkizuna dugu, ez daitezela, gure utzikeriarengatik desagertu.

b.- *Biodibertsidadea babesteko:*

Aspaldian, gizakien arduragabekeriagatik edota sentsibilitate ezagatik, asko dira galdu diren arrazak.

Euskal Herrian ere, tamalez, horrelakorik gertatu dira eta gertatzen ari dira.

Desagerturikoak ez dute itzulbiderik (ez behintzat era errazean). Horien artean "Baztango txerria" eta "Chato vitoriano" deituriko txerriaren kasuak ditugu, besteak beste.

Une honetan galtzeko arriskuan dauden Euskal Herriko arrazen artean, besteak beste, Betizu-arraza dugu, eta, egin beharrekoak eta lau egin beharko ditugu gure tartean jarrai dezan.

c.- Faktore ekologikoak:

Gaur egun, gero eta nabarmenagoa da naturarekiko gizartearen kezka.

Bestalde, E.B.ren nekazaritza politikak, gero eta garrantzi handiagoa ematen dio naturaguneari.

Hala eta guztiz ere, Euskal Herrian, gero eta gehiago dira, toki malkartsuak direlako, bertan belardi eskasak daudelako edota beste arrazoirengatik (zenbait baserrien desagertena, mendi askotan, mendetan zehar ohikoa izan den artzantzaren desagertzea eta abar...), sasiz zein oteaz betetzen ari diren mendiak, gizonentzat erakargarritasuna galduz.

Hau dela eta zenbait toki zoragarri, sasi, ote zein sastrakak janda aurkitzen da, eta, beste hainbat bide beretik jarraitzeko zorian.

Betizuek, bestalde, orografia, elikadura eta klimatologia baldintza gogorretan bizitzeko ikaragarriko gaitasuna dute (basatasuna).

Gauzak horrela, arraza horren parte hartzea bere garrantzia izan dezake aipaturiko inguruneak garbi mantentzeko eta bere erakargarritasuna berreskuratzeko.

Zer esanik ez, guzti honek balio bikoitza duela egun garatzen ari diren "Parke Naturalen" kasutan.

2. HELBURUA BETETZEKO ORAIN ARTE EMANDAKO URRATSAK

a.- Behin-behineko *zentsoa* egiteari ekin diogu

Orain arte, Gipuzkoan, arraza garbian nahiz nahastuta (nahas dura maila desberdinekin) egon arren, biziraupenerako programa baten barnean sar daitezkeen animalia kopurua, 60ren batekoa da.

Hauetarik, 40ren bat (32 eme 2 urtez gorakoak eta 8 eme 2 urtez azpikoak), Urnieta, Andoain eta Hernaniko baserrikoak dira eta Adarra mendia eta Leitzaran dute larretoki.

Beste 13 eme (2 urtez gorakoak) Eskoriatzan daude.

Azkenik, 4 urteko behi bat, 3 urteko zezen bat eta behi bat, 2 urteko bi behi, urte beteko zezen bat eta 3 asteko txahal-idisko bat Gipuzkoako Foru Aldundiak Aian duen Sarrola baserrian daude.

Horietako zenbait betizuen odola ere hartu dugu eta serumak hozgailuan gordeta ditugu, bihar edo etzi beharrezko azterketak egin ahal izateko.

Zentsoa egiteko, urtero egiten den osasun-kanpainaz baliatzen ari gara, eta, hurrengo kanpainan, 1998 urtearen hasieran, aipaturiko animalien kalifikazioari ekingo diogu, honen

bidez, arraza garbikoak diren edo ez diren, horren arabera, arrazaren berreskurapenari begira, bakoitzarekin zein jokabide hartu behar dugun zehazteko.

b.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Sarrola baserrian, erreferentziko Betizu talde bat osatzen hasi gara. Une honetan, 2 urtez gorako 4 behi eta zezen bat daukagu

c.- Baserriz-baserriko hainbat bisita, zentsoa egin ahal izateko eta baserritarrengandik betizuei buruzko zenbait irizpide jasotzeko.

d.- Betizuzaleei Elkartek sortzen lagundu eta animatu. Puntu honetan azpimarratu beharra dago, Adarramendiko betizuzaleek, dagoeneko, eman dituztela aurreneko urratsak.

Dena den, betizuak, berriro ere gure menditan ikusi nahi baditugu, urrats txiki batzuk eman ditugun arren, oraindik gogotik lan egin beharko dugu, bai administrazioak eta baita betizuzaleek ere, azken batean, azken hauen esku baitago gehien bat betizuen geroa.